

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure negozioaren arrakasta lortzeko hainbat baliabide ezinbestekoak izango dira. Huetan atentzio berezia jarriko dugu beharrezkoak baitira jarduera egin ahal izateko.

Baliabide fisikoak

Gure enpresan funtzeskoak diren baliabide fisikoak hauek dira:

Food truck-a da elementurik nagusiena, gure proiektuaren oinarria. Hori izango baita, gure produktuak sukaldatuko ditugun lekua, salmenta puntua, gure irudia eskainiko duen elementua. Bere diseinua eta egokitasuna funtsezko elementuak izango dira.



Bestetik gasolina, sukalde tresnak eta janaria izango dira beharko ditugun beste elementu fisikoak gure zerbitzua eman ahal izateko.

Baliabide intelektualak

B2 kotxe txartela, marketineko ezagutzak eta sukaldaritzako ikasketak beharrezkoak ikusten ditugu. Gure taldekideek ezagutza horiek dituzte eta ondoren azalduta datoz gutako bakoitzaren eginkizuna azaltzen baitugu.

Giza baliabideak

4 ekintzaile gara proiektu hau aurrera eramateko elkartu garenak. Peio CEOa eta sukaldaria izango da, sukaldaritzako ikasketak bukatu berri ditu eta proiektuaren zuzendaritzaz arduratzeko gaitasun pertsonalak ditu.

Andoni marketing departamentua kontrolatuko du, Illart harreman publikoak eta kontabilitatean lan egingo du eta Ibai negoziazioaz eta horniketaz arduratuko da.

Finantza-baliabideak

50.000 euroko inbertsioa behar dugu proiektua martxan jartzeko eta baliabide hauek lortzea ezinbestekoa da.

